

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresak familia osotasunean kontutan izanik, beraien beharrak hizpide hartuz, aisialdi, formakuntza zein aholkularitza zerbitzua eskaintzera dator. Hau horrela izanik, gure heziketarako filosofia ardatz harturik eta gaur eguneko bizitza estiloa ikusirik, familiak elkarrekin kalitatezko momentuak bizitzea da gure xedea, egunerokotasuneko ordutegi bateraezinak alde batera utzirik, elkarrekin ditugun momentu urriak aprobetxatu eta aberastu nahian.

Aisialdiari dagokionez, argi dugu eskolaz kanpoko ekintzak oso lagungarriak direla umeen bizitzan. Umeek zerbait berezia aurkitzen dute. Eskolaz kanpoko ekintzetan, beste leku bat dute, beste rol bat; beste baliabide batzuk dituzte, lantzeko eta adierazteko. Horregatik, uste dugu ekintza hauei behar duten garrantzia eman behar zaiela, espazio egokiak aukeratuz, kalitatezko momentuak eskainiz, familia harremanak sendotuz, natura errespetatuz honi etekina ateraz...

Hau guztia kontutan izanik, eskolan igarotako orduen ostean, gure aisialdiak eta ekintzak, gehienak eta posible den guztietan, kanpoan eta naturak ematen dizkigun baliabideak aprobetxatuz egingo genituzke. Izan ere, ezin dugu ahaztu haurrek beharrezkoa dutela natura, berez zaie erakargarria. Naturarekiko kontaktuan, modu osasungarrian garatzen dira arlo guztietan: arlo fisikoan, emozionalean, mentalean, sozialean eta espiritualean. Aire zabalean eta biziarekiko interakzioan egotea haurren oinarrizko eskubidea izan beharko litzateke gure gizartean. Gaur egun oraindik, zoritxarrez eskolaz kanpoko ekintza gehienek leku itxietan izaten jarraitzen dute.

Beste batzuetan ordea, udalekin harremanak sortuz, herriko baliabideak, espazioak, parkeak, gelak... erabiliko genituzke.

Horretaz gain, gaur eguneko eskolaz kanpoko ekintza gehienak haurrentzat bideratuta daude eta geroz eta gauza gutxiago konpartitzen dira familia giroan. Horregatik, gure aisialdiak aldaketa ekarri nahi du eta ohiturak aldatu, eskolatik irten eta haurrek familian disfrutatzea, nola ez giro alai eta ludiko batean.

Gure ustez, aisia hezitzailea izan behar da, guztiontzat onuragarria delarik. Mundu justuago, osasungarriago eta bizigarriago baten beharra ikusten dugulako, eta behar hau asetzeko bidea, urratsak, espazioak, arnasa hartzeko tokiak behar direlako. **Aniztasunean berdin eta parekide** den gizartea bilatzen dugu, eta **naturarekiko errespetua** ulertzen dugu iraunkortasunaren oinarri gisa. "Ez digu edozein aisialdi eredu balio. Haur eta gaztetxoentzako aisiak, eta berdin helduentzakoak ere, balio hezitzaileak ekarri behar ditu berekin bai edukietan eta baita egiteko moduetan ere".

Aniztasunaren errespetua, parekidetasuna eta aukera-berdintasuna dira horietako hiru, eta laugarrena bestearen onarpena, **inklusibotasuna**.

Eta hori guztia euskaratik. Euskarari, haurri bezala, bideak ireki behar zaizkiola uste baitugu.

Eta amaitzeko, aisialdiarekin batera formakuntza zein aholkularitza zerbitzua eskaini nahi dugu. Gu, hezitzaileok, haur zein helduen bidelagun bezala definitzen gara eta beraz, aisialdi zein bizitza hezteko eran ere printzipio berdintsuak eskaintzera gatoz, formakuntza, ikastaro zein txarla-tertulua desberdinak eskainiz.

Hau guztia laburbiltzeko, ideia nagusienak taula batean ezarri ditugu:

<p><b>GURE OINARRIAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Familia harremanak sendotu</li> <li>● Kalitatezko momentuak eskaini</li> <li>● Atxikimendua sustatu</li> <li>● Denontzako ekintzak</li> <li>● Kulturartekotasuna landu</li> <li>● Heziketa kontzientea bultzatu</li> <li>● Natura errespetatuz honi etekina atera</li> <li>● Aniztasuna landu</li> <li>● Espazio zabalak erabili</li> </ul>
<p><b>ZERK BEREIZTEN GAITU?</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Egiten dugun eskaintza zabala: aisia, formakuntza eta aholkularitza</li> <li>● Aisialdi hezitzailea (baloreen transmisioa, aniztasuna, inklusibotasuna, naturarekiko errespetua...)</li> <li>● Adin edota bestelako mugarik ezartzen ez dugulako</li> <li>● Sormena lantzea</li> <li>● Elkarbizitza sustatu</li> </ul>
<p><b>BALIO KUANTITATIBOA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Familientzako doakoa</li> <li>● Ekintza gehienetarako plaza ez mugatuak</li> </ul>
<p><b>BALIO KUALITATIBOA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Adituak (jakintzak)</li> <li>● Herriko baliabideei etekina atera.</li> <li>● Kanpo espazioaren aprobetxamendua, natura errespetatzea.</li> <li>● Harreman zuzena.</li> </ul>